

Irratien *hold upa*

Milesker erran behar diot, diogu denek, Euskaltzaindiari, gutaz oroiturik nahiz ileak xurituak eta buruak xoilduak ditugun, hemen izateak oroit arazten digu agure zaharrak garela, 70-80 urtez goitirekin, azken hatsetan, balio handirik gabe. Euskaltzaindia izanez ohoratzen gaituena Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea* liburua eman beharko zigun opari. Arralleriak aparte, milesker beraz gutaz oroiturik.

Bizkitartean aitortu behar dut huts batzuk senditzen ditudala. Gustatuko zitzaidan hemen ikustea, guk bezainbat mereziko zuen *Luzien Etxezaharreta* bat. Hark sortu du *Maiatz* aldizkaria 62 ale, 80 liburu eta 150 idazleekin. 1981tik *Gure Irratiko* lehen kazetari euskaraduna izan da eta ez da ixildua.

Eñaut Etxamendiren 60 kantuak ezagunak dira Balmasedatik Mitikilerat. Idatzi ditu bestalde dozena erdi bat liburu, batek *Irun saria* irabazi baitu.

Manex Pagola hementxe daukagu 100 kantuz goitirekin bere alportxetan, Ablitasetik Bokalerat kantatzen baitira. Antzerki zenbait bestalde.

Ondoko izendapenetarako izanen dira... Jainkoak bizi ematen badie.

Hiruak oso ezagunak beraz. Edo ezagunak beharko lukete Labaienek sortu EITBri esker hemen. Euskal Irratiei esker han. Galdera bat: noiz entzun dituzue bi hauen kantuak azkenik? Atzo? Joan den astean? Joan den hilabetean? Joan den urtean? Euskal Irratietan ez da lekurik euskal kantu, dantza, gaita, txirula, txistu, alboka, txanbela, banda eta txarangentzat. Toki hori hartu dute amerikano, espagnol eta frantsesek. Bidean entzun dut EITB irratia (EUSKAL irrati telebista). Kontatu ditut 6 kantu espagnol, 7 euskaraz eta... 16 amerikanoz. Ez PP edo PSEren erabakiz! Tresna horiek eskutan dauzkaten euskaldun zenbaitek, izena eta paga euskarari zor dizkiotelarik, euskararentzat eman diru publikoa lapurtzen dute, itotzen ari gaituzten 3 mintzaireri emateko. Zinezko *hold upa*! Ezin onartua!

Baliteke ere zer erran erdararen tokiaz. Gertatu zait mintzatzea espagnol telebistan: ez euskaraz, itzulpenarekin espagnol, bainan nire espagnol traketsean. Frantziako irrati telebistetan : ez euskaraz, frantseseko itzulpenarekin, bainan frantses hutsez. Zergatik balukete haiek euskal irratietan itzulpenarekin mintzatzeko eskubidea? Zergatik erdal kantuak euskal hedabideetan euskal katurik ez delarik haienetan? Erdal sare osoak badituzte eta gureak behar gainerat?

Euskaltzaindiaren eginbidea euskararen zaintzea baita, zaindu euskara. Salatu *hold up* hori. Ordezkarri bat baduzue EITBen, mintza dadila han. Mintza Iparraldean irratiak dirustatzen dituen EKeri. Euskaltzainak, zaindu euskara! Emaiozue *behar duen thornuya*! Euskal Irratietan sekulan entzuten ez den kantu bat gehiago! Bernat Etxepare baino nahiago dituzte Michael Jackson eta Julio Iglesias. A! Juan Inazio Iztueta hemen balitz!

Xipri Arbelbide
Bilbon, 2014ko uztailaren 18an